



EuskoSare Egitasmoa

-bertsio laburtua-

Euskal Herriaren eta diasporaren arteko
loturak estutu eta optimizatzeko
komunikazio eta kooperazio integralerako
Sarea

Aurkibidea

1. Helburuak.

2. Aurrekariak.

Euskal Herriaren eta diasporaren arteko egungo komunikazioaren ezaugarriak

Kanpoko euskal gizataldeen susperraldia eta Euskal Herriarekin uztartzeko beharra

3. Diasporak gisa honetako egitasmoari ematen dion bultzada.

4. Derrigorrean integratzailea izan behar duen premiazko egitasmoa.

5. Eusko Ikaskuntzaren ekimena.

6. Nola har dezakeen parte egitasmo honetan interesatuta dagoen edozein Erakunde / Instituzio zein pertsonak.

7. Eranskina: abian jarri beharreko programen adibideak.

1. Helburuak

Aurkezten dugun egitasmoak helburu hauek bete nahi ditu:

- Interneten komunikazio eta kooperazio integralerako Sare bat sortzea, **EuskoSare** izena hartuko duena, eta Euskal Herriko, diasporako zein "euskaldunen adiskide" diren erakunde -eta hauetan diharduten pertsona- guztien artean komunikazio emankorra izateko bitarteko izango dena.
- Euskal kultura, gizarte eta ekonomiari buruzko informazio, eduki zein zerbitzuen trukea bultzatzea, hauen guztien zabalpena egiteko xedearekin.
- **EuskoSare**-ren bitartez, euskal gizatalde global bat badela erakustea, Euskal Herriko zein diasporako euskaldunak biltzen dituen, eta bertako partaide izateko aukera zein bitarteko berriak eskaintzen dituen.
- Euskal Herriak diasporako euskal gizataldeen artean duen irudia berri eta eguneratzea, eta, diasporako biztanle hauen bitartez, baita herrialde horietan bertan bizi direnen artean ere.

2. Aurrekariak.

Euskal Herriaren eta diasporaren arteko egungo komunikazioaren ezaugarriak

Munduan zehar diren euskaldunen ondorengo eta Euskal Herriak egun dituen biztanleen kopuruari so eginez gero, erraz antzeman daiteke gutxi direla Euskal Herriaren eta diasporaren arteko harremani eusten dieten eragileak. Zehazki, Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko hainbat instituzio eta zenbait euskal erakundetako kide batzuk baino ez. Salbuespen bakarra Euskal Telebista genuke, bere irudiak kontinente amerikarrera ere heltzen baitira, nahiz eta leku jakinetara bakarrik.

Nolanahi ere, agerikoa da Euskal Herriko hiritar zein instituzioek gero eta interes biziagoa agertzen dutela atzerrian bizi diren milioika euskaldunekiko loturak indartzeko. Horren isla garbia dugu diasporari zuzendutako programek izan duten gorakada, Eusko Jaurlaritzak antolaturikoek bereziki. Hauen artean, aipamen berezia merezi dute MUNDU OSOKO EUSKAL ETXEETAKO ORDEZKARIEN BILGUNE DIREN EUSKAL GIZATALDEEI BURUZKO KONGRESUEK.

Kanpoko euskal gizataldeen susperraldia eta Euskal Herriarekin uztartzeko beharra

Kanpoko euskal gizataldeek urteak daramatzate suspertzeko prozesuan sartuta. Arrazoi ezberdinak tarteko egoera nahi bezalakoa ez den arren, itxaropentsu eta baikor agertzeko moduko alderdiak beha ditzakegu: belaunaldi berriak konpromisoak hartzen hasi dira, euskal etxeak ugaritzen ari dira, kultur proposamenak aurkezten eta garatzen dira, eta, mundu osoan barna, beren ahaide zein kulturaren sustraietan sakontzeko interesdun berriak agertzen zaizkigu. Zio hauek guztiek, nortasun kolektiboak zehaztera joko duen aro berri bati hasiera ematera garamatzate.

Ezbairik gabe, euskal etxeen zein gainerako elkarte moten susperraldi honi bitarteko egokiak erantsiz gero zabalduko litzazkigukeen bideek oso aukera aberatsak emango litzakigukete.

3. Diasporak gisa honetako egitasmoari ematen dion bultzada.

Gasteizen 2003ko uztailan izandako Euskal Gizataldeen Mundu Kongresuan Lau Urteko Plan bat onartu zen, eta, bertan, Eusko Ikaskuntzak diasporako buruei aurkeztutako egitasmo bat oinarritzat hartuz, besteak beste honako jarduera ildo garatzea erabaki zen:

“Internetez eta beste bitarteko zein tresnen bidez, Euskal Herriaren eta diasporaren arteko loturak estutu eta optimizatzeko kooperazio eta komunikazio integralerako sare baten sorrera bultzatzea”

Bide horretatik abiatuta, munduan zehar zabalduta dagoen euskal kultura bere lekua egiten hasi da komunikazioen eta bitarteko berrien esparruan. Bere nortasuna indartu eta erroak bilatzeko ekimen horretan bultzada erabakigarriak behar dituela-eta, euskal gizatalde planetario -eta digitala- sortzeko erabakia hartu dugu, muga politiko gutxiago izango dituen, eta kulturaren aldetik anitzagoa izango dena.

Euskal Herriaren irudia munduan barna hedatzeko orduan, funtsezkoa da diasporaren ekarpena ere kontuan hartzea, herrialde ugariara euskal albisteak maiz nazioarteko agentzien bitartez baino ez baitira heltzen. Hori horrela, Euskal Herriak eta diasporak komunikazio arloko erronka berriei aurre egin beharko diete munduari euskaldunen irudi eguneratu eta errealista azaltzeko, sarritan ekonomia eta kudeaketaren aldetik zailtasunak izanen dituzten arren.

Premiazkoa da, halaber, Euskal Herriak gainerako herrialdeekin dauzkan loturak biderkatzea (kulturalak, merkataritzakoak, akademikoak, sozialak, familiarak, etab.), trukerako espazio berriak Euskal Herriaren irudia hobetzera eraman gaitzaten.

Internet, Webek eta posta elektronikoak ematen dituzten aukerak baino askoz ere eremu zabalagoa izanik, oholtza paregabea dugu planteamendu anitz hauek guztiak bideratzeko. Hain zuzen ere horretaz baliatu behar dugu euskaldunok, erraztasunak emanez eta modurik aproposenean, esparru honi begira dihardutenek beren asmoak betetzeko: euskara ikastea, beren genealogia ezagutzea, Ameriketara dauzkaten lehengusuen eta Euskal Herriara dauzkaten arbasoen berri izatea, beren herri zein baserriaren historia ezagutzea, beren lanbide berbera duten euskaldunekin harremanetan jartzea, eurekin negoziatio egitea, urrutiko adiskideak egitea... Funtsean, beste euskaldunekin harremanetan izatea eta euskal gizatalde globala eratzea litzateke gakoa, Euskal Herri birtuala alegia.

4. Derrigorrean integratzailea izan behar duen premiazko egitasmoa

Gaur-gaurkoz ez dugu ezagutzen Euskal Herriaren eta munduaren artean komunikazio integrala sustatzeko euskarri ezberdinak uztartzera bideratuta dagoen ekimenik.

Egitasmo hau gauzatzeko finkatutako xedeak betetzeko, behar-beharrezkoa da bitarteko gisa Internet erabiltzea, eta, ondorioz, nahitaezkoa izango da paradigma honek eskaintzen dituen abantailak gainerako bitarteko eta euskarriek ematen dituzten aukerekin uztartzea, eta komunikatzeko bide guztiak koordinatzea: Interneteko lekuak, irratia, telebista, aldizkariak, egunkariak, posta elektronikoak, harreman pertsonalak, trukerako programak, etab.

Komunikazioari ikuskera berri bat eman nahi diogu, aro berri bat zabalduko duena leku ezberdinetako euskaldunen bizitzan eta Euskal Herriaren zein munduaren arteko harremanean.

Hortaz, gisa honetako komunikazio prozesu bateko giltza hitzek *kooperazioa*, *artikulazioa* eta *sinergia* behar dute izan. Hemen eta han, non-nahi diren mota orotako erakundeetako euskaldun guztien eginahala eta konpromisoaren beharra izango dugu. Prozesu zentralizatuak ez digute balio. Ahalik eta etekinik handiena atera beharko diegu azpiegitura teknologikoak eta programek eskaintzen dizkiguten baliabideei, eta epe jakin batzuen barnean, pixkanaka jomuga berriak finkatzen joango gara.

Ez da erraza izango **EuskoSare** bete-betean funtzionatzen izatea. Lan ugari gelditzen zaigu egiteke, eta anitzak dira oso egitasmoak barnebildu nahi dituen ikuspegiak, guztien legezko eskubideak errespetatuz betiere. Abian jartzeko zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta denbora gehiago itxaron beharko dugu emaitzak ikusi arte.

5. Eusko Ikaskuntzaren ekimena.

Eusko Ikaskuntzak, 1918an sorturiko erakundeak, bide luzea du egina Euskal Herriko errealitateari buruzko ezagutzak areagotu eta hedatzera zuzendutako egitasmoei dagokienez.

Azken urteotan garbi erakutsi du BERRIKUNTZENGAN DUEN INTERESA, bai lanak prestatzeko orduan, bai hauei zabalpena emateko teknologia berriez baliatzean.

Interneten azterlan eta ikerketa andana eskaintzearekin batera, Eusko Ikaskuntzak Euskomedia Fundazioa sortu du bere baitan, hots, Elkarreak berak urtez urte ekoizten dituen edukiak zein besterenak izanik interes berezia dutenak Interneten jartzen espezializaturiko adarra. Azken lan hauen adibiderik adierazgarriena, "Auñamendi" Hiztegi Entziklopediko Ilustratua genuke.

Egitasmo hau, Eusko Ikaskuntzak sortu zen une beretik dauzkan helburuei fideltasunez erantzunez eta azpiegitura zein ezagutza teknologikoez baliatuz landu dugu.

Baina bada gisa honetako egitasmo bat aurrera eraman ahal izateko behar-beharrezkoa den hirugarren elementu bat ere. Eusko Ikaskuntza erakunde independente bat da, mundu guztiko Institutio eta Organismo publiko zein pribatuekin harremanak bideratzeko prest dagoena.

Hori dela-eta, Eusko Ikaskuntzak berehala jarri nahi du egitasmo hau abian. Hasierako fase honetan gidaritza geuregain hartzeko, ezinbestekoa hiru baldintza betetzea:

- Esfortzuen errentagarritasuna bermatuko duen gutxieneko finantzaketa lortzea.
- Bertan parte hartzeko asmoa duten mundu guztiko norbanako zein instituzioei ateak zabaltzea.
- Beharrezkoa balitz, gaurtik aurrera egitasmoa zuzenduko duen eta nortasun juridiko propioa izango lukeen entitate banandu bat sortzeko konpromisoa hartzea.

6. Nola har dezakeen parte egitasmo honetan interesatuta dagoen edozein Erakunde / Institutio zein pertsonak.

EUSKO IKASKUNTZAK, BERE BAITAN HARTZEKO GUZTIENTZAKO ZABALIK DAUZKANEZ BERE ATEAK, INTERESA DUEN OROK HAR DEZAKE PARTE EGITASMO ERAKARGARRI HONETAN. EUSKOSAREN MODU BATEAN ZEIN BESTEAN AKTIBOKI PARTE HARTZEKO GOGOIA IZATEA BESTERIK EZ DUGU ESKATZEN.

JAKIN BADA KIGU EMAITZARIK ONENAK LORTZEKO AHALEGIN BEREZIAK EGIN BEHARKO DITUGULA EKARPENAK BEHAR BEZALA KOORDINATZEN. HARGATIK, EUSKO IKASKUNTZAK BERE JAKINDURIA ETA BORONDATE GUZTIA IPINIKO DU EGITASMO HONEN ZERBITZURA.

INTERESDUNAK JAR BITEZ EUSKOSARE GARATZEAZ ARDURATZEN DEN **EUSKO IKASKUNTZAKO EUSKOMEDIA FUNDAZIOAREKIN** HARREMANETAN, BESTERIK GABE EGITASMO HAU ZERTAN DEN JAKITEKO BADA ERE.

www.euskomedia.org

euskomedia@euskomedia.org

7. Eranskina: abian jarri beharreko programen adibideak.

Komunikabideak / Informazioa

- Euskal gizataldeak dauden herrialdeetako prentsa orokor eta espezializatuan Euskal Herriari buruzko informazioa areagotzea
- Euskal Herriko komunikabideetan diasporari buruzko informazioa areagotzea
- Interneten Euskal Herriari eta euskal etxeei buruzko albiste independenteak argitaratzea
- Interneteko egitasmo bateragarrietan kooperatzea
- Interneteko eduki eta zerbitzuak sustatzea

Instituzioen arteko harreman eta trukeak

- Euskal etxeetako kideei zerbitzuak eskaintzeko eta beren arteko loturak estutzeko, Interneten webmail, foro, zerrenda eta beste aplikazio teknologikoak ipintzea
- Euskal Herriko eta euskal gizataldeak dauden herrialdeetako instituzioen arteko truke eta kooperazioa bultzatzea
- Euskal Herriko eta diasporako herrialdeetako buruzagien arteko lotura bultzatzea
- Euskal etxeetako buruen arteko trukea bultzatzea
- Diasporako gizataldeen arteko harremanak sustatzea
- Euskal Herriko eta diasporako herrialdeen arteko kirol arloko trukeak egitea
- Gizarte boluntarioritza bultzatzea Latinoameriketara
- Euskaldunen Adiskideen etorkizuneko Liga batekin kooperatzea
- Euskal Herrian dauden beka, laguntza, truke eta abarrerako programak hedatzea
- Arlo guztietan trukeak egitera zuzendutako agenda eta datu baseak sortzea

Familia

- Ahaideak bilatzea
- Genealogia

Haurrak / Nerabeak / Gazteak

- Euskal Herriko eta euskaldunak dauden herrietako eskolen arteko trukea bultzatzea
- Euskal Herriko eta diasporako haurren, nerabeen eta gazteen arteko truke erreala zein Internet bidezkoa bultzatzea
- Interneten haurren, nerabeen eta gazteentzako eduki bereziak argitaratzea
- Euskal gizataldeak dauden herrialdeak bisitatzerako doazen euskal gazteentzako programa turistikoa antolatzea

Kultura / Hezkuntza / Ondarea

- Euskal gizataldeak dauden herrialdeetako ikasle eta irakasleei Euskal Herriko informazio akademikoa zuzentzea
- Internet bidezko ikastaroak prestatzea
- Euskal kulturari buruzko ikastaroak antolatzea
- Ingelesa mintzatzen den herrialdeetako gazte euskaldunei hizkuntza ikastaroak eskaintzea
- Diasporako herrialdeetako euskal ondarea kontserbatzea
- Diasporako euskal liburutegi eta artxiboak lotzea
- Euskal kultur produktuak hedatu eta saltzea

Ekonomia / Enpresa / Lana

- Enpresen arteko trukeak sustatzea
- Merkataritza, finantza eta I+G+B loturak indartzea
- Gazte profesionalen arteko trukea bultzatzea
- Euskaldunen ondorengoei Euskal Herriko lan eskaintzak ezagutaraztea